

## **Amiantoaren biktimetzako konpentsazio-funtsari buruzko baterako adierazpena**

1. Ibilbide luze eta neketsuaren ondoren, Diputatuen Kongresuko Lan eta Gizarte Segurantzaren Batzordeak lege-testuaren irizpena onartuko du bihar, amiantoaren biktimetzako konpentsazio-funts bat eratzeko. Irizpen hori aho batez onartuko genuen legebiltzar honetan. Funtsa 25 milioi euroko zuzkidurarekin sortuko da, eta biktimei eta familiei lagunduko die epaitegietan beren eskubideen alde borrokatu beharrik ez izateko, horrek dakarren kostuarekin, bai arlo ekonomikoan, bai pertsonalean. Gaur, onartu bezperan, Jon Garcia Arruabarrena Amiantoaren Biktimen Euskal Elkarteko presidentearekin bildu gara, eta eskerrak eman nahi dizkiogu bisitagatik eta egindako lanagatik. Zor historiko bat kitatuko dugu, berandu, baina azkenean egingo dugu.
2. Duela zazpi urtetik hona, legebiltzar honek konpentsazio-funts bat eskatzen dio Espainiako Gobernuari. Elkartuta egin dugu, eta elkarteen eskutik, kasu honetan, Amiantoaren biktimen euskal elkatearen eskutik. Saiatuak izan gara eta beti erabili izan dugun batasuna zaintzen jakin izan dugu. Batasun horrek zilegitasuna eman digu eta indar handia, justizia eta erreparazioa eskatzeko orduan. Arazo bizi bati buruz ari gara, substantzia oso toxiko horrekin urtetan bizi izan diren milaka pertsonari eragin dien, eragiten dien eta eragingo dien osasun-arazo bati buruz. Erakundeentzako erronka kolektibo baten aurrean gaude, eta Legebiltzar hau beti izan da irekia, eta aktiboki lan egin du irtenbide bat aurkitzeko. Badakigu urte askotan, gehiegitan, bakarrik sentitu zaretela, babesik gabe. Bidean sufrimendu handia dago, larritasun handia, min handia... Badakigu kasu askotan ez garela garaiz iristen.

3. Badakigu eztabaida hori duela urte asko konpondu behar zela, baina bihar Kongresuan emango den pausoa, azkena izango ez bada ere -Senatuan berrestea falta da-, garrantzitsuenetakoa izango da erromesaldi honetan, arazo eta atzerapenetatik salbuetsita ez dagoen arren. Eskertzen dizuegu zuen arnasa, bultzada eta indarra. Horri esker gu ere ez gara makaldu. Azkenean, urte askoren ondoren, sekulako bidegabekeria zuzenduko dugu. Ez dugu babesgabetasun-zirrikiturik nahi, ez dugu auzitegietan min gehiago nahi, ezta kalbario gehiago ere. Ordua iritsi da zor hori kitatzeko amiantoa bezalako substantzia kantzerigeno baten eraginpean egoteagatik inoiz gaixotu behar ez zuten pertsonekin. Zuekin gaude, eta bihotzez eskerrak ematen dizkizuegu honaino ekartzeagatik. Orain, Jon, zurea da hitza...